

Jalgi hadi plazara!

Hona hemen gaiari eta sortuko duzun testuari lotutako zenbait proposamen zeure kabuz egiteko. Proposamen horiek euskaltegiaren blogean aurkituko dituzu, B.2 mailako ikastorduen atalean. Gogoratu ikasprozesuan aurrera egiteko oso garrantzitsua dela **zure euskara plazara ateratzea!**

JALGI HADI PLAZARA!

Zeure ingurua aprobetxatuta:

- ✓ Ziur zeuk ere baduzula maskotarik, edo ingurukoren batek. Bada, ezagutu egin nahi dugu! **Graba ezazue** zeuen maskota telefonoarekin, erakutsi nolakoa den, esaguzue nola duen izena, zer gustatzen zaion, zer ez, non egiten duen lo... (EiTBko 3TXULO saioaren jatorrizko ideia da). **Eraman** ikasgelara, eta **erakutsi** ikaskideei.
- ✓ Lan-unitatean, eztabaida batean hartu beharko duzu parte: *gehiegi mimatzen ote ditugu maskotak?* Baina rol batean oinarrituta eman duzu iritzia. Oraingoan, gaiaren inguruko zeure benetako iritzia emango duzu: **audio labur bat grabatuko duzu**, eta **ikaskide bati bidaliko** diozu.

Internet aprobetxatuta:

- ✓ **Sartu** www.dogvivant.com/eu web-orrian, eta **irakur ezazu** DOG VIVANT MANIFESTUA izeneko agiria: hiri tolerantetagoak eta txakurren aisiarako egokiagoak sortzen lagundu nahi dute, eta, horretarako, hainbat ideia dituzte. Ondoren, **idatzi**, labur-labur, zer iruditu zaizun, ados zauden, ez zauden ados, zergatik... **Bidali ikaskide bati** (helbide elektronikoa, whatsapp-a...), eta **harekin komentatu gelan**.
- ✓ Ezagutzen al duzu **animaliak zaintzeko aplikaziorik?** **Bisita ezazu** aplikazio horien inguruko informazioa dakarren web-orria, eta **komentatu ikaskide batekin gelan: erabilgarriak al dira app horiek?**
- ✓ **Zaintza partekatua... txakurrekin?** izeneko **audioa** entzungo duzu. Entzun ondoren, **audio labur bat grabatu** horren inguruan duzun iritzia azaltzeko, eta **ikaskide bati bidaliko** diozu.

